



## EZ DA NORMALA

Barrundiako alkatetzatik zein EAJko udal taldetik ematen ari diren zenbait jokabide eta jarrera ezagutu beharko lukete Barrundiako herritarrek, horrela, bakoitzak jarduera hauen gaineko iritzia sortzeko eta epaitu ahal izateko. Gure aldetik ez dugu jarduera hauen gaineko baloraziorik egingo, soilik “normalak ez direla” esatera mugatuko gara:

-Ez da normala 2008ko azarora arte Udaleko sarrera eta irteeren Erregistroa gure esku egotea informazioa eskuratzeko, eta data horrez geroztik informazioa eskuratzeko traba larriak jarri izatea. Behar beharrezkoa da informazio hori guztia edukitzea, Udalak egiten duenaren jakinaren gainean egoteko, baita gure proposamenak aurkezteko ere.

-Ez da normala 2007ko udaz geroztik une oro galdetzen aritzea (9 osoko bilkura ezberdinetan) Zentral Eolikoaren Afekzio-kanonari buruz eta “*beste jabeen baldintza ekonomiko onuragarriei*” buruz, orain arte inongo erantzunik jaso gabe.

-Ez da normala zuk zeuk egitea lehenago besteari leporatuta-koak. Hasiera batean EAJko taldeak mozioak garaiz eta denborarekin aurkeztea eskatzen bazituen, ez da normala gero beraiek aurkeztea azkenengo momentuan. Egoera berdinean aurkitzen gara pertsona bezala errespetatuak ez direla esaten dutenean. Errespetua al da iritzien gaineko balio-judizioak egitea, ahozko eraso pertsonalak egitea, gai pertsonalen inguruko epaiak burutzea, etabar?



### Buletin honen edukiak:

EZ DA NORMALA	Orr. 1,2
KONSTITUZIOAREN 30. URTEURRENA	Orr. 2
ZEREN ZAIN GAUDE ?	Orr. 3,4
KRISIA	Orr. 4
EUSKARA KALERA, ...ETA UDALETXERA	Orr, 4

-Ez da normala kudeaketa edota udal politika gaitan izaten diren diferentziengatik harreman pertsonalak gaiztotzea edo apurtzea. Ez da normala Udalean gure “hautetsi” izaera eta kanpoko herrikide edo ezagun harremanen artean bereizten ez jakitea.

-Ez da normala herritarrak desinformatzeko, gauzak desitxuratzeko eta gezurrak esateko akusazioa mantentzea, hauek frogatzeko kapaz ez direnean. Are gehiago, ez da normala soilik txanponaren alde bat agertzen dugula leporatzea eta gero txanponaren beste aldearen gainean ez ikusiarenak egitea. **AUMATEGI boletín honetan egia borobilak kaleratzen direlako** izango da.



**ALDIZ, GUZTIZ NORMALA DA BARRUNDIAKO HERRITARRAK EGIAZKO INFORMAZIOA ESURAGARRI IZATEA, HORRELA BAKOITZAK BERE IRITZIA SORTZEN LAGUNTZEKO ETA JOKABIDEAK EPAITU AHAL IZATEKO**

## KONSTITUZIOAREN 30. URTEURRENA

Espainiako Konstituzioaren 30. urteurrena garrantzia politiko handiko unean eman da. Frankismo osteko trantsizioa bideratzeko tresna izan zenak, Euskal Herriari nazio gisa zor zaizkion eskubide demokratikoak ukatuz eta menpekotasunean oinarritutako harreman politiko eta ekonomikoak ezarriz, Euskal Herriaren eta Espainiaren arteko subiranotasun gatazka iraunarazteko totem erabakigarria izaten jarraitzen du espainiar unionismoarentzat.

Egun, harez gero 30 urte pasa direnean, hainbat ahots entzun izan dugu adieraziz eta onartuz trantsizioa Espainiako Armadaren eta oligarkiaren sektore ezberdinen txantaje eta kontrolpean egin zela eta horiek argiki inposatu zituztela erreforma politikoaren mugak.

Espainiaren batasuna bermatuko zukeen barne antolaketarako marko berria, jabetza pribatua, monarkia, bandera eta diktaduraren krimenentzat “punto eta amaierarako legea” ziren “espainiar demokrazia gaztea” eraikitzeke zutabe nagusiak.

Ezker abertzalea izan zen makillaje politiko huts haren aurrean, salaketa, erresistentzia eta alternatiba politikoa agertuz altxa zen bakarra (gaur egun bezala). Eta denbora da arrazoia ematen edo kentzen duen epaile bakarra.

## ZEREN ZAIN GAUDE?

Barrundiako Ezker Abertzalearen Udal Taldeak 2007ko udaz geroztik darama, Elgeako Zentral Eolikitik ko-bratzen den Afekzio-kanonaren gainean azalpen eske. Aurreko urteetako aktetan, testualki agertu ohi zen Afekzio-kanona “kontratuan hitzartu gabe dagoen arren, beste jabeek dituzten baldintza ekonomiko onuragarriekin berdintzeko xedez aplikatzen den”.

Deigarria da badirela beste hainbat jabe “baldintza ekonomiko hobekak” dituztela onartzea, honen aurrean eta Eskoriatzako alkateak bidali zizkigun Gipuzkoako jabeen kontratuen kopiak ikusita, kontuak egin genituen. Hau guztia Elgeako Zentral Eolikoari dago-kio, Urkillan egin zen zabalkundea kontuan hartu gabe.

40 aerosorgailutik 28 Barrundiako lurretan daude, bakoitzak 660Kw ditu; Gipuzkoan dauden 12 aerosorgailutatik 9 660Kwkoa eta beste 3rak 850Kwkoak (esan beharra dago Araba eta Gipuzkoa arteko mugagatik dagoen auziak egoera alda dezakeela).

Bai Arabako kontratuetan eta baita Gipuzkoakoetan, hasieratik aerosorgailu bakoitzeko 200.000 pezetako kanona ezarri zen, urtez urte KPIrekin eguneratuko zena. Baina Gipuzkoako kontratuan 6 milioi pezetako minimoa ezartzea onartu zuten, hor dago gakoia.

Barrundian jasotzen den zenbatekoan “Afekzio-kanona” jasota badago ere, (hasieran 2 milioi pezetakoa zena eta urtez urte KPIarekin eguneratuz joan dena) herrialdeen eta aerosorgailuen

arteko erlazioak, Gipuzkoan baino askoz diru gutxiago jasotzen dugula erakusten du.

Honako hauek dira 2000. urteko prezioak:



-Barrundian hasieran 5.600.000 peze-ta kobratzen hasi ginen (200.000 peze-ta 28 aerosorgailu bakoitzeko). Horri Afekzio-kanonaren 2 milioi pezeta gehituz gero, guztira 7.600.000 pezeta ematen du; 271.428 pezeta aerosorgailuko.

-Gipuzkoan hasieran 6 milioi pezeta kobratzen zuten, 500.000 pezeta dituzten 12 aerosorgailu bakoitzeko.

Kontu hauek errazak dira eta, nahiz eta KPIaren igoera gehitu, diferentzia oraindik ere proportzionala da. Kontua instalatutako Kilowatten arabera ere egin daiteke, baina diferentzia lotsagarria izaten jarraitzen du. Barrundian eskuratzen dena –lurrak Entitate Publikoenak izanda- Gipuzkoako jabe partikularrek jasotzen dutena ikusita, iruzur bat da.

Barrundiako ezker abertzalearen taldeak, Zentral Eolikoaren gainean hainbat proposamen egin ditu, besteak beste:

-2007ko abuztuan Udalean, Eólicas de Euskadi enpresari, parkearen etekinaz galdetzea proposatu genuen, bide batez beste hainbat parkeen ekoizpen-datuak ematea alderatzeko. Ez zen onartu.

-2007ko azaroan, mozio bidez, Udalak

pribatizazioaren aurkako jarrera hartzea eta, baldintzak hobetze aldera, kontratuak aldatzearen alde agertzea proposatu genuen. Ez zen onartu.

-2008ko abuztuan, Eólicas de Euskadi enpresari gure baldintzak Gipuzkoako jabeen baldintzekin berdintzeko eskaria luzatzea proposatu genuen. Ez zen onartu.

**Nahikoa itxaron dugu. Seriotasuna eta kudeatzeko gaitasuna beharrezkoak dira. Eólicas de Euskadi-ri gure kanonak Gipuzkoan ordaintzen ari denarekin berdintzeko eskatu behar diogu, gehiago itxaron gabe.**

## KRISIA

Azken hilabeteotan mundu guztia dabil krisia gora, krisia behera: komunikabi-deak, enpresariak, gobernu eta sasi-gobernuak... Langileok oso aspalditik gaude krisian, baina horrek, antza, ez du batere inportantziarik. Orain denon lehentasuna bankuen eta enpresen itzelezko irabaziak salbatzea izan behar omen da.

Eredu ekonomiko, sozial eta politikoaren aldaketa ezinbestekoa eta premiazkoa da. Euskal Herrian denok ondo bizitzeko behar besteko aberastasuna badago. Baina, horretarako, aberastasun hori modu justu batean banatu beharra dago; ekonomia pertsonen mesederako eta ez alderantziz planifikatu behar da; kalitatezko zerbitzu publikoetan inbertitu behar da, beste batzuen artean hezkuntza, osasuna, etxebizitza eskubidea eta babes soziala bermatu daitezten. Eta, jakina, hau guztia burutu ahal izateko Euskal Herrian eredu ekonomiko, sozial eta politiko hori erabakitzekeo eskubidearen jabe ere izatea ezinbestekoa dugu.

## EUSKARA KALERA, ... ETA UDALETXERA

Euskara erabili ahal izatea eskubidea da eta, nahi baduzu, inolako aitzakiarik gabe erabil dezakezu, gaztelaniaz egiten den bezala. Hemendik animatu egiten zaitugu zure hizkuntza, euskara, erabiltzera Administrazioarekin dituzun harremanetan eta, zehazki, Barrundiako Udalarekin diharduzunean.